


Grupo Municipal
ELKARREKIN LASARTE-ORIA PODEMOS
Udal Taldea



elkarrekin
PODEMOS.

Honako idazkia bihoa bere tramiterako
..... Sailera
Pase el presente escrito al Negociado de
..... 2019 AZA NOV 05 tramite

LASARTE-ORIA

AUZOTARTASUN DOKUMENTUA EZARTZEKO MOZIOA OROKORRAK

Atzerritar jatorriko auzotar asko bizi dira eta lan egiten dute Euskadin administrazio-egoera irregularrean. Atzerritarrei buruzko Legeak errotze sozialaren bitartez bizileku- eta lan-baimena lortzeko baldintza gisa ezartzen du Estatu espainolean gutxienez hiru urtez modu jarraian egotea, betiere egoera erregulatzeko eskaintzen diren baina oso eraginkortasun txikia duten beste bide batzuen artean (besteak beste laneko errotzea eta jatorrizko herrialdean bizileku- eta lan-baimena izapidetzea).

Baldintza horrek pertsona asko behartzen ditu euren eguneroko bizitza egoera irregularrean garatzera, "paperik gabe", euren borondatearen aurka eta gutxienez hiru urte luzez. Izan ere, epe hori igaro arte ez dira kontuan hartuko ez errotzea, ez integrazioa, ezta harrera-gizartean egiten duten ekarpena ere "paperak" izapidetu ahal izateko.

Gutxienez hiru urteko aldian, pertsona horiek modu prekarioan bizi eta lan egin behar dute, gizarte-bazterkeria pairatzeko arrisku handiko egoeran, eta kanporatzeko agindu bat edozein unetan izapidetu eta gauzatuko ote dieten mehatxupear. Are gehiago, pertsona askok arazoak dituzte nortasun-agiriak izapidetzeko euren jatorrizko herrialdeetan.

Errealitate hori gero eta ohikoagoa da Euskadin, eta erantzun bat eman behar zaio alderdi politikoen aldetik, Eusko Jaurlaritzaren *Herriartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planarekiko* koherentzia bermatzeko. Izan ere, plan horretan Euskadin dauden etorkinen eta errefuxiatuen arretarako politikak inkardinatzen dira, eta oinarritzko helburu gisa ezartzen du, besteak beste, **kulturarteko bizikidetzaren sustatzea**.

Barne Arazoetako Ministerioko datuek argi uzten dute kanporatze gehienak (jatorrizko herrialdeetara bidaltzen diren pertsonak) soilik bizileku-baimena ez izateagatik gauzatu direla, eta hori administrazio-falta bat da eta ez delitu bat.

2005. eta 2017. urte bitartean gauzatu ziren kanporatzeen % 70,5 administrazio-arrazoiengatik egin ziren bakarrik: egoera irregularragatik.

Euskadin ditugun eskumenetan oinarrituta, ezin da Atzerritarrei buruzko Legea aldatu (Estatuaren eskumena da), baina baliabideak gara daitezke hemen bizi, lan egin eta errotzeko asmoa duten, baina kanporatze-agindu baten mehatxupear bizi diren, jatorri atzerritarreko auzotarrei laguntzeko. Are gehiago, bai Konstituzioan, bai Autonomia Estatutuan, gizartean integratzearekin eta gizarteratzearekin lotutako eskumenak autonomia-erkidegoen eskuetan uzten dira. Hau da, Barne Ministerioaren zeregina da mugak eta atzerritarrak zelatatzea, eta euskal administrazioen zeregina da integrazioa bermatzea.

Herriartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren aurkezpenean baieztatzen den moduan: immigrante gehien-gehienek Euskadin geratu nahi dute. Datuek berretsi egiten dute hori. Alegia, gehiengoaren borondatea lur honetan jarraitzea da."

Hemen adierazten den auzotartasun-dokumentua edo auzotartasun-txartela Bartzelonan, Valentzian eta Madrilan ezarri da, besteak beste, eta oso modu onean funtzionatzen du. Dagokion atzerritarra erroldatuta dagoen udalerriko Udalak ematen dituen identifikazio-agiriak dira, eta egoera irregularrean dauden hiritarrei zuzentzen zaizkie. Oro har, hiriko auzotar gisa integrazio-maila egiaztatzeko balio dute. Atzerritarrak barneratzeko zentroekin eta kanporatze-aginduekin lotutako prozeduren esparruan lagungarri gisa erabili daitezkeen dokumentuak dira.

Baliabide horiek oso lagungarriak dira errotze-prozesuan laguntzeko eta egonkortasuna emateko, baita egoera irregularrean dauden eta hemen bizi nahi duten pertsonen babesa emateko ere. Dagoeneko euskal gizartearen eguneroko bizitzan murgilduta dauden auzotarren integrazioa egiaztatzeko bitarteko bat dira. Horregatik, ekimen bat abian jartzea proposatzen dugu, Euskadiko udalerrietan antzeko ezaugarriak dituen esperientzia bat ezartzeko.

Etorkinen integrazio eta partaidetza sozialarekin lotutako politika integral eta zeharkako bat bultzatzea eta koordinatzea Eusko Jaurlaritzaren zeregina bada ere, udalak dira hiritarrekiko hurbiltasun handiena duten erakundeak eta euren auzotarren integrazio-maila hobeto ezagutzen dutenak. Are gehiago, auzotartasun-dokumentuak beste prozesu batzuk ahalbidetu ditzake: adibidez, erroldatzeak.

Horregatik guztiagatik, Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiaren izenean, Lasarte-Oriako Udalaren Osoko Bilkurari honako **AKORDIO PROPOSAMEN** hau helarazten diogu:

1. Lasarte-Oriako Udalak konpromisoa hartzen du *Hemengoa Naiz* auzotartasun-dokumentuaren ekimena abian jartzeko, udalerrian bizi diren eta egoera irregularrean dauden atzerritarren integrazio-maila egiaztatze aldera, eta, horrela, errotzen eta geratzeko aukera egonkortzen laguntzeko eta Estatuan bizitzeko eta lan egiteko baimena ematen duen administrazio-dokumentazioa eskuratzeko aukera errazteko. Era berean, dokumentua defendatzeko mekanismo gisa erabili ahal izango litzateke CIE batean barneratzeko prozesu batean eta kanporatze-agindu baten aurrean.
2. Lasarte-Oriako Udalak konpromisoa hartzen du Eusko Jaurlaritzari eskatzeko jarraibide eta arau bateratuak prestatu ditzan Euskadiko udalerrri guztietan *Hemengoa Naiz* auzotartasun-dokumentu bat abian jartzeko, administrazio-egoera irregularrean dauden auzotar atzerritarren integrazio-maila egiaztatu ahal izateko.

Lasarte-Orian, 2019ko azaroaren 5ean.

Bozeramailea Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos



David Ares Rodríguez